# IRUZKINAK EGITEN LAGUNTZEKO PLANTILLA

| TESTU TESTIGANTZA | GRAFIKA TAULA | KONTZEPTU DEFINIZIO | ARGAZKI - BIDEO |
|---|---|---|---|
| <u>**Zer da testu inguru historikoa**</u>?<br><u>Testu inguru historikoa</u>: **Egoera historikoa da**.<br>● Garaiko, eremuko edo egilearen egoeraren inguruko elementu oro. **Testuarekin zerikusia dutenak**, eta noski bere erranahia moldatzen dutenak.<br>● **Aurrekariak** (nola iritsi den horretara)<br>  ● Urrutitik datozenak, hots, garai eta lekuetakoak, **Aurrekari Urrunak**, edo **testu inguru urruna**<br>  ● Garai eta eremu hurbilekoak: Aitzindari edo **aurrekari hurbilak**; **testu inguru hurbila**<br>● Egilearen inguruko erreferentziak eta testuaren **sailkapena**, Sarrera gisa:<br>  ● **Egilearen** inguruko **erreferentziak**, **erranahia** eta **lekua** edo eremua**.**<br>  ● Testu **mota**: testuaren **sailkapena**<br>    ● Iturri modura<br>      ● **Lehen mailakoak** (historikoak)<br>      ● **bigarren mailakoak** (historiografiakoak)<br>    ● **Gaiaren** ingurukoa (ekonomikoa, soziala, politikoa...).<br>    ● **Izaeraren** araberakoa (arauak, azalpenak, propaganda…)<br><u>Nola burutuko da klasean?</u><br>● **Egileren** inguruko erreferentzia,**garaiaren** erranahia eta **lekua** eta **Sailkapena**:<br>  ● Iturria moduan: lehen mailakoa (hª) edo bigarren mailako (historiografiakoa)<br>  ● **Edukiaren** edo **gaiaren** arabera<br>  ● **Izaeraren** arabera (araua…)<br>● **Testu inguru historikoa** Urruna eta aurrekariak , Testu ingurua Hurbila eta gertuko aurrekariak<br>● **Testuaren erranahia aurreko elementuak kontutan harturik**<br>● **Idei nagusien iruzkina:** Aztertu eta dagokion garaian zerikusia hanpatu<br>● **Ondorioak**: Duen garrantzia testu ingurua aztertu eta gero eta izango duen eragina. Iritzi kritikoa | **Deskripzioa**: zehaztu daiteke:<br>**mota**: grafika lineala, barraduna, sektoriala, bertze egituretakoa, edo taula bat ote den (orduan aipatu zutabe kopuru eta abar)<br>**Edukia**: Materia edo edukiaren arabera: ekonomikoa, demografikoa, soziala, politikoa eta abar.<br>**Kronologia**: agertzen diren urteak eta aipatu zer gertakari edo prozesu historikoa ematen den edo aldia.<br>**Interpretazioa**, analisia eta bere erranahiaren balorazioa<br>**Datuen azalpena,** bilakaera eta honen zergatiak, honela aipatuko da bertan ageri den informazio historikoa. Hots, bere erranahi historikoa eta honetarako erlazionatu gaietatik ateratako datu historikoekin. Bertan bertze gaiekin dituen loturak aipatu daitezke, adibidez nazioarteko egoerarekin, edo eta eraginak, gerorako bilakaera eta abar. | a) Hasteko **Kategoria** baten barruan kokatu kontzeptua: “instituzio politikoa”, “gertakari historikoa”, “pertsonai historikoa”, e.a<br>b) Zehaztu bere **kronologia**: gertakari ematen den datan, legea indarrean jarri, edo bertzela aldi baten hasiera eta bukaera datak, edo gertakari historikoarenak, pertsonaiak jaio eta hiltze data...<br>c) Batzuetan zehaztu beharko da **kokapena** edo **eremu geografikoa** a.d dekretu batek zein eremurako den, edo gerra bat non ematen den, aztarnategia non kokatu ...<br>d) Nagusiena kontzeptuaren **ezaugarriak edo elementu nagusiak** osatuko dute. Hau da bere erranahia edo garrantzi historikoa ulertzeko balio dutenak. Laburki egin behar denez aipatu soilik nagusiena. | **Deskripzioa**: zehaztu daiteke:<br>**Euskarria**: argazki, bideoa edo zer den<br>**Irudikatutakoa**: Materia edo edukiaren arabera: erretratoa (taldea edo bakarkakoa), gertakaria, identifikatu lekua, pertsonak eta abar.<br>**Kronologia**: zuzena edo ante quem edo bataz bestekoa.<br>**Interpretazioa**, analisia eta bere erranahiaren balorazioa. Ematen duen informazioa.<br>**Datuen azalpena, A**geri den informazio historikoa, hots, bere erranahi historikoa, pertsonaiak eta abar. Erkatui gaietatik ateratako datu historikoekin. |